



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## OROIMEN HISTORIKO UDAKO AUZOLANDEGIAK

Uztailaren 6tik 18ra, Asteasu, Aduna eta Zizurkilgo Udalak Aranzadi Zientzia Elkartearekin elkarlanean eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagunduta, udako auzolandegia egiten ari dira aurten ere 18-30 urte bitarteko ikasleekin, "**Gerra Zibila 1936-1937: erresistentziaren oroimena eta aztarnen bila**" delarik auzolandegiaren izena. 1936ko abuztuan eta irailean matxinada frankistari aurre egiteko lehenengo erresistentziako antolakuntza eta enfrontamenduak Tolosaldean kokatu ziren; horren ondorioz, inguruko herrietan jasotako hainbat gertakari garrantzitsu egon ziren Asteasu, Aduna eta Zizurkileko inguruko mendietan gertakari horien arrastoak aurki daitezkeelarik. Hau horrela, auzolandegiak irauten duen egunetan zehar, hainbat ekintza eramango dira aurrera: Zarateaitz (Zizurkil) inguruko lubaki batzuen garbiketa eta indusketa, garaiko dokumentazio historikoaren lanketa, irteera ezberdinak eta hitzaldi irekiak arratsaldeetan.

Ikasleekin hainbat irteera egingo dira kolpe militarrean zehar gertakari ezberdinak bizi zituzten Euskal Herriko hainbat herrietara: **Elgetako** (Gipuzkoa) Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentrora eta Intxorta mendiko inguruko lubakiak ezagutzera, **Larrabetzuko** (Bizkaia) Burdinazko Gerrikoaren eremuko bunker eta lubakiak ikustera, **Donostian** barna bisita gidatua 1936an Gipuzkoan eta hirian gertatutakoak ezagutzera eta, azkenik, **Oiartzungo** Karrika auzoko deshobiraketa lanak ezagutzera eta Arkale inguruko defentsa sistema ezagutzera. Bisita gidatu horiek herrietako alkate batzuekin edota elkarte ezberdinetako adituekin egingo dituzte.

Hitzaldiei dagokienez, herri bakoitzean bana egingo da. Horrela, datorren astelehenean, **uztailaren 6an, Karlos Almorzak** matxinada frankistaren garaiko testuinguru historikoaz arituko da **Asteasuko Udaletxeko aretoan**. **Uztailaren 9an**, osteguna, **Esti Ripa** Segurako Partaidetzako Teknikariak "*Amantalek ixilean daramaten Gerra*" (2014) dokumentalaren inguruan arituko da eta dokumentala ikusteko aukera egongo da **Zizurkilgo Atxulondo Kultur Etxean**. Azkenik, **uztailaren 16an, osteguna, Amalia Kowasch eta Gotzon Bergerandik** hitzaldi bat emango dute **Adunako Udaletxeko aretoan** Ezkabako (Iruñeako) kartzelaren eta bertako presoak laguntzeko emakumeek sortutako laguntza sarearen inguruan. **Hitzaldi guztiak arratsaldeko 19:00etan** izango dira, auzolandegiko ikasleez gain, **inguruko herritar guztiak gonbidaturik daudelarik**.

**Herritarrek** gazteek lubakietan egiten ari diren lanak ikusi eta ezagutu nahi izanez gero, aukera izango dute **uztailaren 13ko asteko goizetan Zarateaitz ingurura** gerturatzeko. Bertara joateko laguntza behar izanez gero, jarri kontaktuan Asteasuko Partaidetzako Teknikari den Alicia Susorekin. Animatu hitzaldietara eta gure memoria historikoaren berreskurapenean parte hartzera!

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)



**ADUNAKO UDALA**  
(GIPUZKOA)

## HERRI BATZARRA

Hurrengo **asteartean** (ekainak 30), **arratsaldeko 7etan, Kultur Aretoan**, gai ezberdinei buruzko informazioa aurkeztu eta horien inguruan eztabaidatzeko herri-batzarrerako deialdia egin du Adunako Udalak.

### GAI-ZERRENDIA:

- ✓ Adunako Plan Estrategikoaren ebaluazioaren 2014ko urteko emaitzen aurkezpena
- ✓ Herritarrek 2015 urterako egindako proposamenen inguruko azalpena
- ✓ Abendutik martxan den eskaripeko autobus zerbitzuaren berri ematea

Bileran hitz egingo diren gaiet buruzko zalantzarik izanez gero, udaletxera dei dezakezu (943-692571) ostiral honetan (9:30etatik 12:30etara) edo posta elektronikoko bat bidali [udala@aduna.eus](mailto:udala@aduna.eus) helbidera.

Animatu eta parte hartu!!

## LEHIAKETAREN IRABAZLEA

Ekainaren 5ean mundu maila Ingurumen Eguna ospatzen zela aitzakia hartuta, Udalak Kontsumo Arduratsuari lotutako galdera-erantzunen lehiaketa antolatu zuen. Parte-hartzeko azken eguna ekainaren 14a izan zen.

Parte hartu duten herritarren emaitzak aztertu ondoren, galdera guztiak ondo erantzun duen herritarrik izan ez denez, saria galdera gehien ondo erantzun dituenari ematea erabaki dugu. Hori horrela, **Miguel Angel Cestau izan da lehiaketaren irabazlea** (saria: Uztartzan bazkaldu edo afaltzeko otordu berezia familia guztiarentzat). Beraz, honen bidez Udalak irabazlea zoriondu nahi du eta bide batez, eskerrak eman ere parte hartu duten gainerako herritarrei.

Herriko Plaza 1 - 20150 Aduna

Tel. 943 69 25 71 • Fax 943 69 02 62 • E-mail: [aduna@udal.gipuzkoa.net](mailto:aduna@udal.gipuzkoa.net) - [www.aduna.net](http://www.aduna.net)